



Gu gara Lauro ikastola, gu gara herri txiki-handia. Gu gara ume koxkorrak, neskato eta mutiko alaiak, nerabe zoroak, gazte indartsuak. Hementxe gaude gure gelako ordezkariak, talde-laneko kideak, talde-lanean ezer egiten ez dutenak, 2030 agenda ordezkariak, laguntzaileak, zigortuak eta sarituak. Gu gara matematikariak, historialariak, zientzialariak eta idazleak. Gu gara kirolariak, ur-polokoak, futbolariak, saskibaloikoak eta korrikalariak. Hementxe gaude txoferrak, mantenukoak eta sukaldariak, hementxe jantokiko monitoreak, autobusetako laguntzaileak eta erizaina. Gu gara antzerki taldekoak, euskal dantzetakoak, abesbatzakoak, xakean egiten dugunok eta beste hizkuntzak ikasten ditugunok. Gu gara liburuak motxilan daramatzagunak. Gu gara koadernoak bete, azpimarratu eta apunteak hartzen ditugunak, Gu gara azterketen aurrean urduri gaudenak eta nota onak ospatzen ditugunak, gu gara txuletak noizbehinka erabiltzen ditugunok. Gu gara tutoreak, orientatzaileak, informatikoa, idazkariak eta zuzendaritzakoak. Gu gara gelako bilerak egiten ditugunak, ideiak ematen ditugunak eta erabakiak hartzen ditugunak. Gu gara petoa harro jantzita daramagunok, gu gara kilometroak neurtzen, lekukoa zaintzen eta pankartari eusten diogunok. Gu gara patioan jolasten dugunok, pasilloetan euskaraz hitz egiten dugunok eta "tipi-tapa" oihukatzen dugunok.

**Gara.**

**GU gara.**

Hemen bagarenak izan zirelako garenak, izango direnak gu garelako gaur hemen, eta batez ere, garelako izango garenak.

Hemen gaude euskararen alde. Hemen gaude ahotsa urratu arte. Hemen gaude Ikastola eta gizarte euskaldun bat amesten dugulako.

Hemen gaude, eta orain gurekin hementxe daude gure omenaldia merezi duten pertsonak: **Berbalagun taldekoak**. Txalo bero bat eurentzat denentzat!, euskarara hurbiltzeko saiakera egiteagatik, denbora hartzeagatik *euskara gara* horren barruan sartzeko.

## ZER BEHAR DUGU? TXIKIA ETA GUZTIA

Gero eta euskara gehiago dago, baina ikastolan orduan eta euskara gutxiago erabiltzen dugu. Hau da gure errealitatea. Guk ideia bat daukagu. Gauza txikiak egitean sortzen den eztanda handiaz, erraldoiaz ari gara. Korrika da adibide argia. Jende txiki asko, toki txiki askotan, gelditu gabe, ekimen erraldoia aurrera ateratzen.

Egunerokoan ez dugu ikusten zenbat garen eta Korrikak bazter guztiak betetzera eramaten gaitu, gure presentzia agerian uzten du. Edozein aldaketarako gauza txikiak dira beharrezkoak, keinurik txikiena beharrezkoa da, kimu txikietatik jaiotzen dira zuhaitz erraldoiak.

*Gu* guztiak beharrezkoak dira. *Gu*-rik gabe ez dago *gara*-rik.

Kolektiborik gabe ez dago etorkizunik.

Bidalitako euskarazko watxap bakoitza, sare sozialetan idatzitako istorio bakoitza, afalorduan gurasoekin izandako elkarrizketa txiki bakoitza...

Konspirazio bakoitza, konspirazio guztiak.

Lehen hitzak. Lehen hitz guztiak.

Jantokiko “pasa ogia” guztiak dira beharrezkoak. Kontzertu bakoitza.

Abeslari bakoitza, abeslari guztiak.

Euskararen aldeko guztiak dira beharrezkoak.

Partiduetako “pasa bola” guztiak.

Hitz bakoitza, hitz guztiak.

Friki eta jarta guztiak dira beharrezkoak.

Zoro bakoitza, zoro guztiak.

Datuek erakusten digute emakumeek hartzen dutela hizkuntzaren ardura ere. Mutilak ere beharrezkoak dira. Mutil guztiak.

Pertsona bakoitza, pertsona guztiak.

Gorputz bakoitza, gorputz guztiak.

Itxaropen bakoitza, itxaropen guztiak!

Elkarrekin korrika egindako metro guztiak dira beharrezkoak.

Kilometro bakoitza, kilometro guztiak